

ESKU-HUSKA. Bi pilotariek final-zortzirenetako partidarako materiala aukeratu zuten atzo

Jorge Nagore: «Sakea ez da nahikoa izanen Barriola mendean hartzeko»

Pilotari leitzarraren konfiantza nabarmendu du, baina bera «irabazteko gogoz» dela dio

Eduñe Elizondo | IRUÑEA

Larunbatean aurtengo Manomanistako pilotari nabarmene- netako bat izanen du aurrean Jorge Nagorek, txapelketako fi- nal-zortzirenetako azken parti- dan: Abel Barriola leitzarra. Ba- rriolak lehiaketako laugarren partida du Irurtzongoaren kon- trakoa, eta, orain arte egindako lan bikaina dela-eta, konfiantza osoarekin egingen dio aurre, atzo aitortu zuenez.

Konfiantza horrek, hain zu- zen ere, kezkatu egiten du Jor- ge Nagore. Baina ez horrek ba- karrik. «Pilotari osoa da; sake izugarria du, eta, piloteatzen, bi eskuekin da ona. Aurrean kolpe handia du eta ausarta da, eta, horretaz gain, adoretzu dago», erran zuen Nagorek atzo, Labri- ten.

Barriolarekin egin zuen bat Nagorek, atzo, Iruñeko fron- toian, larunbateko partidarako materiala aukeratzeko. Kosta egin zitzaion Nagoreri bere bi pilotak aukeratzeko, baina ez konforme ez zegoelako, baizik eta gehiegi zirelako gustuko zi- tuenak. Lau aukeratu eta haien artean bi ezin hartuta zebilen Irurtzongoa, Candido Elizalde botileroarekin batera. Azkene- an, bote erdiko bi pilota ater- zuten saskitik.

Nagorek Barriolaren konfian- tza eta adorea aipatu zituen, baina bera ere gogotsu agertu zen atzoko material aukerake- tan, larunbatean partida polita egiteko ilusioarekin. Partidaren gakoa «ongi jokatzeko» izanen dela azpimarratu zuen, eta, Ba- rriolaren indarraren aurrean, bere amak erabili beharko di- tuela erran.

Arma horietako bat sakea iza- nen da, Irurtzongoaren komo- dina, baina ez da ahaztu behar, Nagorek berak gogoratu zuen bezala, Barriola ederki aritzen dela erretoan. «Zerbait gehia- go egin beharko dut, sakea pro- fitatzeaz gain».

Barriolaren kalitatea onartu arren, partida ez du, inolaz ere, galdutzat eman Nagorek. «Aha- lik eta partida onena egiten saiatuko naiz. Txapelketan au- rrera egin nahi dut eta horreta- rako Barriola garaitzea da lehe- nengo urratsa».

Irurtzongoak eskuak ongi di- tuela eta sasoi onean dagoela gaineratu zuen: «Iazkoa bezala- ko entrenamendua egin dut eta



JOXE LACALLE
Abel Barriola eta Jorge Nagore kontrarioa, atzo, Labriten.

ERANAK

JORGE NAGORE (Altiko aurrelaria)

«Barriola pilotari osoa da, sake izugarria du eta piloteatzen bi eskuekin da ona; gainera, aurrean kolpe handia du eta ausarta da»

«Ahalik eta partida onena egiten saiatuko naiz; aurrera egiteko Barriola garaitzea da lehen urratsa»

ABEL BARRIOLA (Altiko atzelaria)

«Nire sakea aprobetxatu behar dut eta Nagore ahalik eta urrutien eduki, atzean»

kontent nago. Orain partida jo- katzea falta da».

Barriola, konfiantzarekin, baina eskuak justu samar

Barriola ere kontent gelditu zen materialarekin. «Nagorenenak gehiago ibiltzen dira behean, baina nire pilotek aire gehiago dute», azaldu zuen. Konfiantza- rekin dago leitzarra baina atzo onartu zuen Nagore aurkari zai- la izanen dela, ez dela batere fio.

Larunbateko partidarako kezka bat du Barriolak: bere es- kuena egoera. «Azken partidari justu bukatu nuen, ez dauzkat

oso ongi. Baina astebetez ma- sajeak hartzen eta tratamen- duarekin egon naiz eta espero dut larunbaterako ongi ego- tea», erran zuen pilotari nafa- rrak.

Partidari buruz, bestalde, ez du inolako zalantzarik Barrio- lak: «Nire sakea ongi aprobe- txatu behar dut, eta, Nagore ahalik eta urrutien eduki. Bera atzean badago zaila izanen da gauza handirik egitea», azpima- rratu zuen pilotariak.

Nagore eta Barriolaren arte- ko partidako irabazleak Errasti izanen du zain, final-laurdene- tan.

Eugi txapeldunak atsedean hartuko du, bere eskuin eskua osatzeko

E.T. | DONOSTIA

Durangon jokatu behar zuen bihar Patxi Eugi txapeldu- nak, baina atsedean hartzea erabaki du, eskuin eskua «oso minduta» daukalako. Joan den ostiralean Azpeit- tian partidu benetan kaska- rra jokatu zuen eta 3 tantoan gelditu zen Imazekin, Etxa- niz-Goñi III.aren kontra. Az- ken hilabetea nahi eta ezi- nean dabil Agoizkoa, esku horretan duen arazoarengat- tik. Geldirik egon nahi ez eta jokatzeko jarraitzea erabaki du orain arte, baina ohartu da erabakirik egokiena atse- den hartu eta esku hori be- har bezala errekuaratu dela.

Maiatzaren 13an ekingo dio azken bi urteotan irabazi duen txapelketari. «Txapel- keta irabazteak baino gehia- go kezkatzen nau orain es- kua ongi jartzeak», adierazi du Patxi Eugik. Herenegun Eibarren entrenatu zen, bai- na 20 minutuz baino ez, ezin izan zuelako jarraitu.

TXOKOAN

ESKU-HUSKA

Tolosan eta Eibarren 2. Mailako finalerdia

Igandean eta astelehenean jokatu dira 2. Mailako Es- kuz Banakakoaren finaler- dia, Eibarren eta Tolosan. Astelenan, Galarza V.a eta Berraondo Aspekoak ariko dira—bihar dute pilota auke- raketa (12:00)—. Beotiba- rren, Otxandorena Maesku- koa eta Ives Salaberri *Xala* Aspekoa—ostiralean dute pilota aukeraketa (12:00)—.

ERREMONTEA

Gaur hasiko da Galarretan, Binakako Erremonte Masterra

Ezkurra-Urretabizkaia II.ak eta Zeberio II.a-Iriartek abiatuko dute gaur Hernani- ko Galarreta frontoian, Bina- kako Erremonte Masterra- ren aurreneko ekitaldia. Os- tegunero jokatu dira partiduak Galarretan, eta la- runbatero Uharteko Euskal Jai Berrin. Aipatutako bi ho- riez gain, Altuna I.a-Eizagi- rre eta Altuna II.a-Lizaso dira parte hartuko duten bes- te bi bikoteak. Txapelketa- ren izenak berak dioen beza- la, gaur egungo erremonteko maisuak dira guztiak. Ikus- min handia sortu du torneo- ak, eta lehenengo partiduak.

ZESTA-PUNTA

Manilako Gorte Gorenak Jai Alai irekitzeko behin betiko baimena eman du

Eusko Basquek jakinarazi duenez, Manilan (Filipinak) duen pilotalekuak irekita ja- rraituko du. Herenegun bildu zen Manilako Gorte Gorena Jaia Alaiaren inguruan behin betiko erabaki bat hartzeko, eta irekita jarraituko duela erabaki zuten, aldeko 8 boz eta kontrako 4rekin. Filipine- tako Gobernuari egindako ustelkeria akusazioengatik itxi zuten bere garaian.

JAIALDIAK

GAURKO PARTIDUAK GALARRETA. 16:00.

Zeberio III.a-urko / Iturralde-Etxeberria II.a. *Masterren Txapelketa*: Ezkurra-Urretabizkaia II.a / Zeberio II.a-Iriarte.

Altuna I.a-Aizpuru / Elizalde-Lizaso. Agirresarobe-Ekiza / Bereziartua-Imaz.

DEPORTIVO. 17:00.

Unda I.a-Ibarra / Iriando-Agirre. Sanchez-Rekalde / Ziskar II.a-Garrido. Daniel-Beldarrain / Urkia-Garma.

BIHARKO PARTIDUAK DURANGO. 22:45 (ETB1).

Titin III.a-Imaz / Capellán-Goñi III.a. Berasaluze VII.a-Jaio / Del Rey-Sukia.